

SEBASTIAN MENDIBURU (1708-

Oiartzuarra dogu baiña amazazpi urtekoa zala sartu zan Jesus'en Lagundira eta eleiz-ikasketak amaitu ebaze-nean Iruña'ra bialdu eben eta antxe emon eban bizitza osoa, gramatika, filosofia ta teologia irakasten.

Bere barruak errietako misiolari-lan betetzea eskatzen eutson eta Naparroa'ko erri guztietan ibilli zan orretan.

Iru liburu mardul osotu ebazan euskeraz: 1) Jesus'en biotzaren deboziñoa: 387 orrialde eta or barruan dator Larramendi'k egin eutson eskutitza. 2) Otoiz-gaiak: 88 gogarte dira eta atsegiñez irakurten da.

3) Euskaldun onaren biziera: Jesus'en biotzaren klofradikoen araudia da baiña ba-ditu olerki batzuk be. Gero dator bat.

Orixe'k diñoanez: "Euskal idalerik oberena au uste dute zenbaitek eta Kikero euskalduna izena ipiñi diote. Axular'en ondo-Ondoan behintzat tokia merezi du. Euskera garbiagoa du oiartzuar (onek) Urdazubitarrak baiño, ez orde ugariagoa".

Ona emen zaritxu bi aztertu dagizuzan. Lenengoa Euskaldun onaren bizitza liburutik artutako Aita San Ignazio'ri olerkia:

Ba-dakizu, San Inazio,
Etsai anitz dogula,
Guztiekin peleara
Noiz-nai aterako gera,
Zeu ba'zatoz gugana.

Izan ziñan zu Loiola'n
Ez bein, bitan jaioa:
Bein soldadu mundurako,
Urrengoan zerurako;
Len eta gero Euskalduna.

Non da gerra, non da etsaia
Zu izutu zinduen?
Armak, lantzak, suak, garrak,
Etsai guztien indarrak
zure kontra zer dira?

Bigarrena itz lauz dator, au Otoiz-gaiak liburutik artua:
"Ez dator nola-nai, ez, bere aldarera, ta gero, gu komunitatzen garanetan, gure baitara gure Jesus maitagarria; bere irabazi edo merezimendu ta ondasun guzi-guziekin dator batera ta bestera; guzi-guziak dakarski, andik eman-naiez urbiltzen zaizkan guziei, oriek aldian artu ar-ala.

Anitz dira ta andiak, bai segurki, gure Jesus'en irabaziak eta merezimentuan"

ERROMANTASUNA/ROMANTICISMO

Kant filosofo aundiak batu ebazan bere aurretiko pentsabideak oreka batera bultzatuz: Buru-argi bidekoak esaldi analitikutan, zentzun-bidekoak sintetiko a posteriori esaldietan eta Aristoteles'en bidekoak sintetiko a posteriori esaldietan. Gaiñera beste zabaltasun aundi bat agertu eban errazoi teoriku eta praktikuagaz.

Baiña Kant il zan 1804n. urtean eta laster barriro banatu ziran pentsabide barriak. Iru gogoratuko doguz onein artean: Erromantasun-bedeoak Europa osoan, burubideko edo idealistak Alemania'n eta zentzun-bidekoak Angland'en.

Erromantikuak biotz-beroak ziran eta Kant'en ideibideari biotza gaiñeratu eutsoen, buru argiarena ez dan mundu ori alboratuta geratu ez daiten.

Baiña erromantikuak ete dauke filosoforik? Bai, eta lengo buru-bidea aberastu egiten dabe eta ametsa gaiñeratu.

Rousseau'k berak be buru argiagaz batera eukan erromantasuna, Goethe idazlea zan filosofoa baiño lenago, gaiñera ideiak be agertzen dauz. Schiller'ek askatasuna goratzen dau, baiña Frantze'ko iraultzaren ondoren latzak bildurtu egin eben eta "ez gagoz askatasunerako gertatuta" esan bear izan eban, kontzientzia oiñarri lez artuta.

Schiller'en gai bereiziaz dira oneik: gizona buru-argia ta sentipena, biak, osotzen dabe, eta neurrigabetasunera

garoaz ez mekanikeriak, organikeriak baiño. Orregaitik erlejiño-arloan panteismorantza doa. Erdi-aroko gaia daben elebarriak maite dauz eta antxiñako jakintzak ez dauz aitzuten, Grezia'koa naiz Ameriketakoak. Aberri bakoitxaren edestia goratzen dau eta ortik etorri dira azpaldiko abertzaletasunak, iñoz kaltegarriak be izaten diranak. Eder-lanak asko goratzen dauz mundugintzaren antzekoak diralako.

Baiña filosofian zer dakarre erromantikuak?

Schleiermacher (1768-1834) da nagusi eta onek batez be erlejiñoaren filosofia agertzen dau, eta, berak ezetz esan-arren, panteista edo dana-jainko zalea da, dana, sentipen naiz intuiziño, erlejiño-bidera daroalako eta erlejiño guztiak bat egitea da beronen ametsa. Or azterten dauz erlejiño guztiak eta onena kristiñauena dala diño. Ez, gero, dogmaz beterik datorren kristiñautasuna, sintesis bat agertu eta Jainkoaren menpean bizi izatea agertzen daualako baiño. Azkenean erlejiñoa baiño arago doa eta berak egindako jainko bat dauko.

Bide orrek geroago filosofi-zaleak "nihilismo"ra daroaz. "Nihilismo" edo "ezerezerkia" berba au Jakobi deritxon filosofo erromanzaleak sartu eban jakin-zaleen artera.

Or daukagu ba, erromanzaleen filosofia, sakontasun aundi bakoa, baiña Europa osoan zabaldu zana.

OLAZAR'tar Martin'ek